

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4294

770/2018 EBAZPENA, abuztuaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita María Concepción Mendoza Edroso andrea Arabako ESiko Integrazio Asistentzialeko zuzendariaren lanpostua betetzeko.

Arabako ESiko Integrazio Asistentzialeko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 13ko 604/2018 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2018ko uztailaren 11ko EHAA n argitaratu (133. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita baldintza profesionalak adierazitako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, María Concepción Mendoza Edroso andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Concepción Mendoza Edroso andrea Araba ESiko Integrazio Asistentzialeko zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2018ko abuztuaren 6tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.